

OÑATI-KO EUSKÉAL-FSTAK



EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN EGINTZA

Donostiyako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Oñatira, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa dan, aurtan, izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz esamiñatu ondoren aurkeztu diran moldaera guziak, zeñen agiria egiten dan urteoroko Oroimengarriyan, izabazi dituzte SARIYAK, izkribatzalleen artean: On Eujenio Urroz, On J. Ezekiel G. Agirreche eta On José Ignazio Garmendiak, *Sinismena eta Euskera*, *Kapillako ardatzlea* eta *Aurreramena* izendatzen diranakgatik. Irabazi dituzte ALDEERAK: On Juan Ignazio Uranga, On José Artola eta On Enrike Elizecheak, *Uda berriya*, *Sabiroya* eta *Interes-Kuchak* izentzat dituztenagatik. Irabazi dituzte AIPAMEN ONRAGARRIYAK: Ona Rosario Artola, On Kayetano S. Irure, On Ramos Azkarate, On Elías Gorostidi eta Goierriar batek, *Aranzazuko Ama Birjiñari*, *Nere ametsak*, *Zer onra dan gipuzkoatarra izatea*, *¡Gurasoa... beti gurasol!* eta *Interes Kucharen mesedeak* izendatzen diranakgatik.

Mucikalarien artean izabazi dituzte SARIYAK: On José Rodoreda, On Migel Oñate eta On Ildefonso Lizarriturrik, *Kant'ona Lanari*, *Jaizkibel* eta *Salto ta brinko* izentzat dituzten kanta moldaera, zortziko eta ariñ-ariñagatik.

Oñati-n, 1902-ko Agorraren 30-ean.

Batzarrearen izenean:

Dianagusia,

ALFREDO DE LAFFITTE.

Goarpelaria,

ANTONIO ARZÁC.

Aditzera.— Irakurtzalleen artean irabazi dituzte *sariyak* Ona Kayetana Aranburu eta On JoséBerra-k, eta *aldeerak* Ona Juana An-donegi eta ona Pia Balzategi-k.

